

B euskararen BERRIPAPERA

Euskara eta aisialdia: udalekuak

Euskara eta aisialdia maiz etorri izan dira eskutik helduta; euskarari aire berezia ematen dioten udalekuak horren adibide garbiak dira.

Zaila da oso mugimendu honen hasiera zehatz-mehatz finkatzea, baina garbi azaltzen zaigu ikastolen sorrerarekin oso lotuta dagoela. Kontuan izanik ikastolek euskararen garapenean izan duten garrantzia, ikasturtean zehar landutakoari udan ere nolabaiteko jarraipena ematea zen helburu nagusia. Uda aisialdiarekin bereziki lotzen dugun urtaroa izanik, udalekuak aipatzean denoi datozkigu burura kirol-ekintzak, jolasak, ibilaldiak, etab.

1965-66 inguruan hasi ziren udalekuak martxan, ikastoletako irakasle eta gurasoen borondatezko lan itzelaren ondorio gisa. Mugimendua hasi berria izanik, lehen urteetan udalekuen filosofiaran inguruko hainbat eztabaida eza-gutu zen. Horiek gaindituta, 1969-70 urte inguruan Ikastolen Federazioak hartu zuen parte eta udalekuek behar zituzten puntu nagusiak finkatzen saiatu zen. Urte horietan udalekuak nolabait arautu egin zirela esango genuke.

Hiru herrialdeetako federazioek beren aldetik udalekuak antolatzen segitu zuten eta 76-80 urte inguruetan federazioetako partaideak elkarrekin biltzen eta antolatzen hasi ziren. Kontuan izan behar da 69-77 urte inguruetan eratu zirela Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako ikastolen federazioak. Mugimendu honetan koordinazio eta elkarlanerako

gune berriak sortzeko balio izan zuen prozesu honek.

1980. urtean jauzi garrantzitsurako oinarriak jarri ziren. Eusko Jaur-larritza sortu eta urtebetera, Kultura Sailak bere gain hartu zuen udalekuen finantzazioa, ordura arte kezka handia zena; aurrerantzean federazioak alderdi pedagogikoez soilik arduratuko ziren. 1983an Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako foru

Azken zazpi-zortzi urteetan hiru lurralde historikoetako foru aldundiek elkarrekin antolatu dituzte udalekuak. Zazpi eta hamahiru urte bitarteko neska-mutilentzako hainbat iharduera eskaintzen dira udan.

Euskal Herrian zehar dauden hogeiren bat instalaziotan, eta guztira berrogeita hamar bat txandatan, beti ere begiraleen ardura-



✕ *Iharduera desberdinak burutuz, jolasa eta kirola tarteko, elkarrekin bizitzea da udalekuen helburu nagusia.*

aldundiek hainbat eskumen hartu zituzten gazteriaran eta kirolaren alorrean. Urte horretatik aurrera elkarlanean antolatzen hasi ziren udalekuak. Aurreko ereduari jarraiki, markoa jarri zuten foru aldundiek eta Federazioa arduratzen alderdi pedagogikoaz.

pean, programetan aktiboki parte hartzeko aukera eskaintzen zaie haur eta gazteei. Egun, iharduera desberdinak, entretenitzea eta elkarrekin bizitzea dira eskaintza horren elementu nagusiak. Aurrekoek gain, badira udalek eta erakunde pribatuak eskainitako

S U M A R I O A

- 1 Euskara eta aisialdia: udalekuak
- 2 Laburrak
Andres Urrutia Badiola
Kontuan hartzeko
- 3 XVI. uda ikastaroak
Deialdiak
Europako ikerketa bisitak
- 4 Izen-abizenez
Estatuko Aldizkari Ofiziala eta hizkuntzak
Lehen begiratuan

hainbat eta hainbat iharduera eta ekimen.

Hizkuntzari dagokionez, txanda elebidunak eta euskara hutsekoak egiten dira. Azken honetarako, beharrezkoa da haurra, bai lagunekin bai begiraleekin, euskaraz mintzatzeko gai izatea. Zorionez, gero eta gehiago dira baldintza hori betetzen duten haurrak; ondorioz, ekintza hauetan euskara hutsez parte hartzen dutenen kopurua ere gero eta handiagoa da. Aisialdia eta euskararen inguruko iharduerak bereziki udan pilatzen dira, baina badira negulekuak, esaterako, edota kirolarekin loturik urte osoan zehar egiten diren eskaintzak ere. Edota, ingeleza azken urteotako irakaskuntza-programetan geroz eta maila baxuagoetan sartzen ari dela kontuan izanik, euskara eta ingeleza eskaintzen den egonaldiek ere badute lekua.

LABURRAK

Mendebaldeko euskara
XX. mende goiengan

Mendebalde Euskal Kultur Elkarrekin antolatuta, maiatzaren 16 eta 17an, Bilboko Batzar Nagusien Aretoan, hainbat hitzaldi emango dira izenburuko gai nagusiz harturik. Bizkaiera ahozko literaturan, irakaskuntzan eta hedabideetan aztertzen saiatuko dira bi egunetan zehar emango dituzten mintzaldietan. Besteak beste, Xabier Amuriza bertsolaria, Kepa Altonaga irakaslea eta Igone Etxebarria ETBko euskara arduraduna izango dira hizlari. Lau urteko lanaren ondoren, Alfonso Irigoien euskaltzain eta idazlearen zuzendaritzapean sortu zen Mendebalde Euskal Kultur Elkarrekin 1996ko udazkenean. Mendebaldeko hizkera aztertu, egokitu eta hari prestigioa emanez, euskara bera indartzea du helburu aipatu elkarrekin.

Bertso Astea 97

Maiatzaren 10etik 18ra bitartean eta Girizia kultur, jolas eta kirol elkarrekin bertsolaritza sailak antolatuta, XVI. Bertsolaritzaren Astea egingo da Oiartzunen,

bertako Udalaren eta Kutxa Fundazioaren babesarekin. Izenak erakusten duen bezala, bertsoaren ingurukoak izango dira asteeko ekitaldi gehienak: maiatzaren 10ean, larunbatean, Oiartzungo Bertsolari Gazteen Txapelketako Finala egingo da Girizia Elkarrekin. Horrez gain, bertso-asteekin lotutako argazki-erakusketa, bideo-emanaldia eta, bereziki, hilaren 18an, On Manuel Lekuona X. Bertso Paper Lehiaketaren sari banaketa egingo da udaletxeko areto nagusian.

Andres Urrutia
Badiola

Andres Urrutia notario bizkaitarra martxoaren 21ean izendatu zuten euskaltzain, Euskaltzaindiak Iraizotzen egin zituen X. Barne Jardunaldietan. Alfonso Irigoien zenaren lekua beteko du orain arte euskaltzain urgazlea izan denak. Andres Urrutia Badiola Bilbon jaioa da 1954an. Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultatean 1976an lizentziatua, 1981ean hasi zituen notario lanak Ondarrun, 1984an lan horri utzi zion arte. 1994tik Bilboko notarioa da. Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakasle da ere, eskola gehienak euskaraz ematen dituelarik.

Fakultatean, dagoeneko euskaraz eginak dituzten irakasgaiei segida emanez, Zuzenbideko sistema osoa euskaraz ematea dute helburu berak eta bere taldekoek. Deustuko Unibertsitatean Euskara Juridikoa mintegia sortu zuen eta UZEIko Zuzendaritza Batzordearen partaide da, erakunde horretako hainbat hiztegiren prestaketan hartu duelarik parte. Arlo juridikoko zenbait liburu idazteaz gain, literatur itzulpenengintzan ere jarduna da; esaterako, Cunqueiro-ren *Hareazko ertolua*, J.R. Tolkien-en *Silmarilion* eta James Joyce-ren *Ostatua*



euskaratu ditu. 1992an argitaratutako *Orrialdeak* lanean bere hainbat lan biltzen dira. Labayruk argitaratzen duen Idatz & Mintz aldizkariko erredakzio-kontseiluko eta Euskal Idazleen Elkarrekin kidea da. Zuzenbidearen alorreko euskara teknikoaren lantzen aritu da, batez ere, Urrutia azken urteetan, Euskaltzaindiaren baitan.

KONTUAN HARTZEKO

Herri Urrats 97

Aurten ere, urtero bezala, euskararen jai nagusiei hasiera emanez, maiatzean Herri Urratsera joateko aukera izango dugu. Senpereko lakuaren inguru paregabearen egingo da maiatzaren 11n, *Elez eta Legez* lelopean eta Seaskak, Iparraldeko Ikastolen Elkarrekin antolatuta. Hamalagarren edizioa izango da aurten goa, eta Iparraldeko nahiz Hegoaldeko euskaltzale askoren bilgune izango da.

UEMA eguna Oiartzunen

Udalerrri Euskaldunen Mankomunitatea (UEMA) osatzen duten udalerriek urteroko jaiak egingo dute aurten Oiartzunen maiatzaren 18an, *Herri euskaldunak bizirik Euskal Herria bizirik* lelopean. Egun horretan, Oiartzungo Udalak elkarrekin sartzeko hartu duen erabakiaren berri emango du ofizialki. Eguerdian izango da ekitaldi instituzionala udaletxean eta, horrezaz gain, jai-giroko hainbat ekitaldi ere izango dira egun osoan zehar.

★ **Ahoz aho, belaunez belau... hil honetan non?**

Maiatzaren 5etik 11ra Lizarran

Maiatzaren 12tik 18ra Altsasun

Maiatzaren 19tik 25era Gasteizen (Floridako Kultur Etxea/Europa Gizarte Etxea)

Maiatzaren 26tik ekainaren 1era Gasteizen (Floridako Kultur Etxea/Arriaga Gizarte Etxea)

XVI. uda ikastaroak

Euskal Herriko Unibertsitateak Donostian antolatzen dituen XVI. Uda Ikastaroak/IX. Europar Ikastaroak direla eta, aurten, bostehun irakasle inguru arituko dira 55 ikastaro eta 6 jardunalditan. Ikasleen aldetik, 500 lagunetik gora bilduko direla espero da.

1997ko ekainaren 23tik irailaren 10era bitartean egingo dira Miramar Jaurerria eta Gipuzkoa-Donostia Kutxako aretoetan. Bertan gauzatuko den programak, ezagutzen eguneratzea, unibertsitatearen hedapena eta unibertsitate arteko elkarlana indartu nahi ditu. Besteak beste, Me-

dikuntzaz, Zuzenbideaz, Kalitateaz, Ekonomia eta Enpresaz, Informazio-zientziaz, Hizkuntzalaritzaz eta Literaturaz arituko dira bertaratuko diren hainbat aditu eta irakasle.

Uztailaren 17tik 19ra bitartean, eta Hizkuntzalaritza eta Literatura zikloaren barnean, Eusko Jaurerriaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzaren eta Europako Batzordearen XXII. Zuzendaritzaren lankidetzaz, Miren Azkarate irakaslearen zuzendaritzapean Tek-

nologia berrien erabilera eremu urriko hizkuntzak biziberritzeko gaia jorratuko da. Ikastaro honen bidez, Europako Batasuneko eremu urriko hizkuntzen garapenean teknologia berrien erabilerak ekarriko lituzkeen ondorioak aztertu nahi dira, besteak beste.

Aipatutako zikloaren barnean, halaber, uztailaren 14tik 16ra bitartean, Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle den Jasone Cenozek eta Innsbruck-eko Leopold-Frazen Unibertsitateko Ulrike Jessner irakasleak zuzenduko dute *Europar elea-niztunak eta hizkuntza minoritarioak* izenburua duen ikastaroa.

Uztailaren 22tik 24ra bitartean Miguel Siguán irakasleak, Madrilgo Complutenseko Andrés Barrerarekin batera, zuzendutako ikastaroan parte hartzeko aukera izango dute bertaratuek, *Lenguas minoritarias, identidades colectivas e ideologías nacionalistas* gaiaren inguruan.

Uda ikastaroetan parte hartzeko matrikulak maiatzaren 8tik aurrera egin ahal izango dira plaza hutsik den bitartean. Informazio gehiago jasotzeko: (943) 21 95 11.



DEIALDIAK

XXVIII. Irun Hiria Literatur Sariak

Literatur sorkuntza eta zabalkuntza sustatzeko asmoz, Kutxa Fundazioak Irungo Udalaren laguntzarekin, XXVIII. Irun Hiria Literatur Sariak deitzen ditu. Euskarazko nahiz gaztelaniazko idazleek parte har dezaketen sari horietara lan originalak eta argitaratu gabek aurkeztu behar dira. Lanak aurkezteko epea 1997ko uztailaren 15ean itxiko da eta ondoko helbidera bidali beharko dira: Kutxa Fundazioa. "Irun Hiria Literatur Sariak 1997", Garibai, 20. 20004 Donostia.

Kirol materialak euskaraz sortzeko beka

Deba Bailerako Euskara eta Kirol Zerbitzuek, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurerriaren eta SHEE-IVEFek antolatutako, kirol materialak euskaraz sortzeko beketarako deia egin da. Bi arlotarako emango dira beka: portaera zientzien arlorako idatzizko materiala sortzeko (400.000 pezeta) eta igeriketa eta borroka-arteetako buruzko fitxa didaktikoak egiteko (350.000 pezeta.) Informazio gehiagorako: Bergarako Udaleko Kirol Zerbitzua. Tel.: (943) 77 91 67

Europako ikerketa bisitak

Europako Batzordeak, Hizkuntza Gutxiengotuen Europako Bulegoaren lankidetzaz, ikerketa bisiten programa gauzatzen du 1983az geroztik. Programa honen arabera, ikasturteroko ikerketa bisitak antolatzen dira hizkuntza gutxiengotuen komunitateetara, bakoitzeko errealitatea hurbiletik ezagutzeko. Orain arte, hizkuntza gutxiengotuetan interesa duten 1.000 lagun inguruk hartu du parte programan. Bisita hauek irakasle, kazetari, ikertzaile eta orokorrean hizkuntza gutxiengotuen alde lan egiten duten guztiei zuzentzen zaizkie. 1996-1997 ikasturtean 85 beka banatu ziren programaren barnean.

Datorren ikasturterako (1997-1998) bisiten programa eta gaiak honako hauek dira:

- ✓ Friuli: elkarleen sare soziokulturala.
- ✓ Komunitate sorbiarra Alemanian: hizkuntza plangintza.
- ✓ Bretainia: hezkuntza.
- ✓ Galizia: hezkuntza, administrazioa eta ikerketa soziolinguistikoa.
- ✓ Luxenburgoko: eleaniztasuna.
- ✓ Norvegiako komunitate suomiarra: bisita orokorra.
- ✓ Frisia: garapen ekonomikoa.

Astebeteko egonaldi hauetan parte hartzeko bete behar diren eskabide orriak Eusko Jaurerriaren Hizkuntza Politikarako Sailordetzan lor

daitezke, Gasteizko 188090 telefono zenbakira deituta. Eskeraek Europako Batzordeari eta Hizkuntza Gutxiengotuen Europako Bulegoari aurkeztu behar zaizkie maiatzaren 31 baino lehen.



Juan Luis Zabala Artetxe



Juan Luis Zabalaren *Galdu arte* nobelak irabazi du Kritikaren Sari Nazionala euskarazko narrazioaren alorrean. Zabala Azkoitian jaioa da 1963an eta Euskal Filologiako ikasketak Deustuko Unibertsitatean burutu zituen. Aipatu sariak gain, beste hainbat ere irabaziak ditu; besteak beste, Debako Kultur Elkarteak antolatzen duen Tene Mujika lehiaketa 1984an, 1992an eta 1993an irabazi du eta Andoaingo Udalak

antolatutako Rikardo Arregi kazetaritza saileko saria erreportaje alorrean irabazi du 1994an. Zabalaren seigarren liburua den *Galdu arte* lana bere jaioterria den Azkoitiko gaztetxean dago kokatuta. Han, orain hamar bat urte gertatutako inguruan girotuta, Zabalak berak ere bizi izandako zenbait gertaera plazaratzeko balio izan dio. Gaur egun, Euskaldunon Egunkarian dihardu lanean.

Juan Ramon Madariaga

Kritikaren Sari Nazionalarekin segituz, Juan Ramon Madariagaren *Argia sortzen den izartegia* poema-liburua izan da euskarazko poesiaren alorrean irabazle. Madariaga Bilbon jaioa da 1962an. Euskal Filologiako ikasketak burutu zituen Deustuko Unibertsitatean eta egun bertan ari da lanean irakasle. Olerkigintza izan da literatur munduan landu duen alor bakarra. *Imentzioaren pergamuak* da

bere lehenengo liburua eta 1988an Bizkaiko Foru Aldundiko Olerki Saria bereganatu zuen. Bigarren poema bilduma *Galera errepikatuak* 1992an argitaratu zen; *Elardiaren ausardia* izenekoa *Negu antzarrak* liburu kolektiboan dago sartuta eta 1993an argitaratu zen. Azken saria jaso duen bildumak Patagoniara egindako bidaia du oinarri eta Alberdania argitaletxearen eskutik kaleratu da.



Estatuko Aldizkari Ofiziala eta hizkuntzak

Ministroen Kontseiluak joan den apirilaren 4an onartu zuen Errege Dekretuaren arabera, Parlamentuan onartutako legeak, lege-dekretuak eta izaera orokorreko xedapenak gaztelaniaz gain, autonomia erkidegoen hizkuntza ofizial guztietan, hau da, euskaraz, katalanez eta gailegoz argitaratzeko aukera da hemendik aurrera.


Onartutako Errege Dekretuak dioenez, eta autonomia erkidegoetako erakundeek horrela erabakiz gero, hitzarmena sinatuko da Estatuko Gobernuarekin, argitalpenen itzulpena, edizioa eta banaketa lanak elkarlanean egin ahal izateko.

Gaztelaniaz gain, beste hizkuntza ofizialetan idatzitako xedapenak, Estatuko Aldizkari Ofizialean edo autonomia erkidegoetako aldirietan argitaratu ahal izango dira, sinatutako hitzarmenean zehaztuko diren epe eta baldintzetan.

Errege Dekretu hau apirilaren 17ko Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu da.

Lehen begiratuan

Ediciones Luna, S.L. argitaletxearen eskutik trenaren inguruko hiztegi mardula iritsi zaigu eskuetara. Gaztelaniazko hamar mila sarrerez osatua, sei hizkuntzatan ematen ditu ordainak (alemanez, katalanez, euskaraz, frantsesez, gailegoz eta ingelesez), bukaeran gaztelaniazko definizio laburra duela. Trenaren inguruko gaiak lantzen dituzten teknikari, itzultzaile eta gainerakoentzat kontsultarako tresna baliagarri izatea du helburu.



Euskararen Berripapera zure etxean doan jaso edo ezagunen bati bidaltzea nahi baduzu, idatzi helbide honetara:

Hizkuntza Politikarako Sailordetza

Wellingtongo Dukea, 2
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)

Euskaraz Gaztelaniaz

Izen-deiturak:

.....

.....

Helbidea:

.....

Herria:

Kodea:

Lurraldea:

Tel.: